

Euskaldunok baikor, osasuntsu dituzu ta orai ñaldi ta geroari begira betargi, gogatsu ta garaille doaz. Oñiak lurrean eta besoak gora, begiak ozkarbi argiz blei-blei, euskaldun xeiok lerrenak egiten ditute bere bizibide yatorrari soin eta gogoz eusteko. Auxe darakuskigute Orixé'ren gizakume izengabeak.

Esanak esan, zerbait nagusiago dira gizabarrok: gizakume ta euskaldun ez dute aski. Guzion gain fededun dituzu. Ta siñesteak euskaldun oien biotz-gogoak samurtu ta beratu ditu ta aberei buruz ere adeibera dituzu, batez ere idi, bei ta astoei buruz, abereok Yesu yayo-berriari lagun egin baitzioten. Arrezkero, eguberriz, yanari herezia ematen die abere zindo oiei. Ala dio poemak:

Aundia! noizean bein —ala bei-umatzez—

Nagusia ikullura jetsi oi da gauzez;

bei oro, buru-aundi, etzan-eta arnasez;

eztituzu jekiko ostiko jo bagez.

Gaur orde, erne ta zuti, Gau aundia usmatuz,

janaren eske daude elkar milikatuz.

Etorri da Jainkoa, pakea zabalduz,

eguzki itzal-bageko zizkuak billatuz.

Gizabar -saillok Garazi doatsuaren elizatxora ta Aralar'eko Mikel Goi-angeruarenera dute yoera: aurrenera Leizta, Beruta ta Larraun-aldetik bideak betean doaz "zer-diozu"ka, igaz ta aurtengo berri galdeka.

"Meza-denbora urbildua da;

jendea barnera da asi:

aldare-erdian, argiz betea.

an dago Santa Garazi.

Aldarearen goiko zizkuan,

San Isidor Nekazari.

—eskua zabal lurrerako, ta

zerura begira aurpegi—.

"Otoitz ta kanta, gogoz diraute.

Mezak dirauen guzian;

ango bakoitzen eskariari

Andre Santak du zer-eman"...

"Sagarakoan isilgunea...

atarin beor-irrintzi,

ardi-joale, beor-kalaska

ta beien kaskoin-zintzarri...

aien gañetik ezkilarena,

biotzen eragingarri,

ta begientzat, lurrin-tartean,

Opari-Ogia zuri."

Legorte gorria dutela, gizabar kopurutsuak Aralar'eko Mikel Goiaingeruari euri eske doaz. Ogeta amazapi errietatik gora doaz gizakumeak oiñuts eta baru, otoi ta asperen egiteko, belauna lurrean yosita:

"Jeki, Jauna, ta lagun gaitzazu!

zure izenarren gorde gu!

gure belarriz aiteri egin

zeniena aditu dugu.

Kyrie eleison, erruki, Jauna.

Besterik merezi dugu.

Gurasoetaz oroi zerala

ordean, entzun iguzu".

"Erruki", "entzun", "barka" diote:

irutara dute eskari;

azkenik, berriz, irutan **Agnus**

oiu Jainko-Bildotsari.

Begira, beintzat, fede bizizko

aurreko Naparroari.

Ez uka, damuz fedea biztu

nai duan oraingoari".

Orra gizabarrok gizon gordin, euskaldun zintzo ta fededun zindo. Onelako zenitun gure arbasoak. Oien antzeko izango al dira oraingo ta geroko euskaldun xeiak!

EMAKUME OLESKARIJAK

"Euzko-Emakume-Abertzale"-Batza'ko ETXAKIN'ek

Neurtitz zarrak eta neurtitz barriak dirala-ta, gixonak diñardube; baña, jakiña, gixonak egiñak beti. Emakume oleskarijak ixan dirala ta bai-dirala ondiño be, ¿gixonak ete-dakije?

Laketu, ba, niri emakume oleskarijetzaz jarduten.

Olertija, Euzkadi'n, euzko-abendea baxen zarra da. Gure asabeak, ludija ludi danetik ona, beti abestu ixan dabe: Urtzi'ri abesti gurgarriak, gau-iharen gabetan ildakuai eresi-abestijak; mutillak neskatiñai maitasun-abestijak; etxejoaun eta etxe-kanderai olentzaro ta Agate Deuna'ren abestijak; gurasuak umiai gabon-abestijak; amatxubak ume-txubai seaska-abestijak. Gure Errijaren ogasunik

ederrenak abestijak ziran eta sendi-barru, belaunik
belaun, gordetzen ziran.

Amabigarren eungiraño abestirik gitxi dazaugu.
Amalau eta amaboskarrenian euzkel-olertija naiko
aurreratuba eguan, eta amasei eta amazpigarre-
netan euzko-abestijak ugarijak ziran. Amazortziga-
rrenian oleskari ospatsubak ixan ziran Euzkadi'n eta
emeretzijan Euzkel-Pizkundia jayo ta ederrez jantzi
zan.

Ezautzen dogun abestirik: antziñekuena "Lelo'-
aren kantua" ei-da.

Leloa il Lelo
Leloa Zera
Il Leloa.

1322'garren urtekuak dira "Beotibar'ko kan-
tua":

Milla urte igarota
Ura bere bidean:
Gipuzkoatarrak sartu dira
Gaztelu'ko etxean,
Nafarrekin batu dira
Beotirar'en pelean.

Beotibar
¡Ay Beotibar
idac daukak
Martin de Aybar.

Aldi berean Amandaro'ren eta Malato Zuga-
tza'ren abestijak entzuten ziran:

Odoldurik eidu giñan
Mallatu arbola onetara,
eta uren dabezanak bere
alan ikusi gaitubela.

1430'garren urtian emakume oleskari zintzuak
ixan ziran Euzkadi'n: Lastur'tar Milla eta Ortiz de
Oro eta Bidaur'tar Sancha. Euren bitartian eztabaida
gogorrak ixan ebezan:

Lastur'tar Milla'k:

Zer ete-da andra, ardiaen zauria,
sagar errea eta ardao gorria,
alabaya kontrario Milla
Azpian lur orra, gañean arria.

Ortiz de Oro eta Bidaurre'tar Sancha'ren eran-
tzuna:

Ezdauko Peru-Garzi
ain gatx andia, apukadua gaitik,
Zeruetako mandatua izanik
andrariok ala kunpli jasorik

Eta olan jarraitu ziran eundaka bertsoz.

Beste emakume oleskari bat be ixan zan: Otxoa
eta Ozaeta'tar Sancha. Beronek 1448'garren urtian
idatzi eban. Bañez de Artazubiaga'tar Martinbere
senarra ildakuaren gomutaz olerki asko egin ebazan.
Ona emen euretariko bat:

Onateko larra jabiltikora,
lau aragurek berean berala,
Martin Bañez Ibarreta'n il dala.
Artuko dot esku batean gezia,
bestean suzi iraxegia:
Erreko dot Aramayo guztia.

Urte berean Bizkaya'n Butron eta Ganboa buru-
zagijen arteko gudaketeak amaitzeko, Ruiz de Gan-
boa'tar Martin eta Butron'dar Jone'k eskondu ziran
eta ezteguba gamutaratzeko euzkel-abestijak egin
ziran, eta emaztegayak berak abestu ebazan:

Berba orren, berba grazia
Berba orri naz ez, dakiola balia
Dardoak egiñarren, bere aldia,
Olasso da euk, egoteko aulkia

Amaboskarren eta amaseigarren eungijetan be
erritar oleskarijak ixan ziran, onelako bertsuak idaz-
ten ebezanak:

Munsiur Chanfarron,
jaun andia,
irungo kalzan
dantza illa

Baña gixonak eta emakumiak etziran bertsolari
errimiak, ikusi dozuben lez. Oraingo aldian arek
baño oleskari zindo ta sentzune-kuaguak bai-dira,
benetan. Eta Euzkel-Pizkundian emakume oleskari
onak ixan dira, antziñekuaguak baño obiak. Ona
emen bi, esaterako:

"Utarsus"-Untzeta'tar Sorne "Onintze-Astibia'tar
Pantzeske.

"Euzko-Emakume Abertzale-Batza" KUAK

(Bizkayeraz)
¡Iixartu, euzko-alabea!

Ortzia garbi ta oztin
 Dakusku, Sorkaldian,
 Argi gorri biguntsuba
 Zabalduten asi da.
 ¡Itxartu, euzko-alaba
 Jagi, emakumia!
 Euzkadi geu-Aberrija
 Da arrotzaren jopuba.
 Oñartian, illunpetan
 Danok lo-egon gara,
 Bere negar, zotin, oyu
 Mingotzak entzun-baga.
 Sabin, gure neba onak,
 Lenengua entzun eban
 Euzkadi'k urgazi-eske
 Eiten euskun didarra:
 Didarra entzun ta zutik
 Bera aldezen jagi zan.
 Sabin jarratzen, edonun
 Asi dira errijan,
 Aberriaren katiak
 Astinduten euzkuak.
 Ugartutua dagoz-eta
 Bein apurtuko dira.
 ¡Eta ondiño lo-zagoz,
 Ene aizta kutuna?
 ¡Etzaitu ondiño itxartu
 Lanaren zarateak?
 ¡Itxartu, euzko-alaba.
 Jagi, emakumia!
 Geure Goi'ko Jaun Onari
 Egin otoi, euzkeraz,
 Eskatu Euzkadi'ntzako
 Bere azkatasuna,
 Geure Aita bigun onak
 Entzungo dautzube-ta.
 ¡Itxartu, euzko-alaba;
 Jagi, emakumia!

(Gipuzkeraz)

Euzko-Gaztedija

Euzko-gaztediya...

¡Lora dun landare mañagarriya
 Gorri ta goriya.
 Ederra da benetan zure aziya!
 Ikusten au, maite, landare-gañean

Mardul-mardul aon' une berean;
 Ikusten aut bakaltegi ederrean
 Orriak naroro ditukenean.
 Ikusten aut, bai, nire maite-maitea
 Aizela lora guzien kutun jabea
 Orok emanik izen berdigabea.
 Zoriyonekua aiz, ba, ene landarea!
 Bañan ¡ai enetxu! zer zorigaitza
 Bai-dator bira-biraka ekaitza
 Loitturik oroen gogo ta gorputza
 ¡Ai zeu errukarriya, lora garbi utsa!
 ¡Ua ortik, ekaitz zital ondakorra!
 ¡Ua ortik, biyotz-gabe ta gogorra!
 Igun ez dek baizik ondakin zaboria
 ¡Ua ortik, utzirik lora jatorra!
 ¡Zorigoitza! ene deyarik entzunge
 Loya egin dek loratxuaren yabe
 ¡Ekaitz dollorra! ¡billau biyotz-gabe!
 ¡Zergatik ondatu dek ene maite?
 ¡Gorrotua iretzat gaurtik betiko!
 ¡Etsaitzat nauk edonun arkituko!
 ¡Billaukeritik ez aiz azkatuko!
 Ain az zeken, zital eta biyotz-bako!
 Lore gorriya, galdu dek, gaxo-gaxua
 Ez ordea ¡alix ori! bere gogua.
 Azi samurrian daukat lerdan arrua
 ¡Bere loratxua izango dan gozua!
 Ekaitza juan ta, dator Eguzkiya...
 Or daukagu zabalik Gaztediya...
 Azia erneturik lora gorriya...
 ¡Euzko-en biyotzetan jarriya!

Euzkel-olerki onek, antziñakuen onduan jarrita,
 bai-dauke aldia.

Baña arek baño askozaz mordollozkuaguak eta
 itxusijaguak be, bai-doguz ikusi:

Markesaren alaba, interesatua,
 mariñeruarekin enamoratua.

Eta:

Kantabria'ko deskalabrua
 gustiz dolorosua.

Emakume euzkotarrak: garbitu, landu, sakondu
 ta ederragotu daigun gure Euzkera laziana.